

BEHATZEKO GAITASUNA

Marc Egea

Eusk: Ele txera

MARTA lan-elkarrizketa batean dago. Elkarrizketatzaileak begiak estali eta gela deskribatzeko eskatu dio.

MARTA: (Begiak esku batekin estaltzen) Nire atzean horma leun bat dago, zuri kolorekoa, erdian koadro bat duena, Kapera Sixtinoaren zehaztasun horrekin, non Jainkoa Adani bizitza ematen ikusten baita, lkean saltzen dituzten horietakoa. Horma duela gutxi bukatu dute pintatzen, beno, izatez, horma guztiak pintatu berri daude, pinturaren usaina dago oraindik. Nire eskuinean -zure ezkerrean-, artxibatzeke kaxaz betetako apalategi-lerro bat, oraindik hutsik -beteta egon ezker ez lirateke modu horretan jasango-. Hondoko horma zuri dago oraindik, ezer gabe, eta pixka bat betetzeko, landare zutun bat jarri dute aurrean, artifiziala, oso erakargarria, eta, alde batean, esekitoki bat. Esekitokian motor-kasko bat dago zintzilik, Real Madrileko eranskailu bat itsatsita duena -alderantziz dago gainera, goitik behera-. Nire eskuinean, xaflazko pertsiana duen leiho bat; gelak eraikinean duen posizioagatik, barruko patio batera eman behar du, bista irekia izan ezker, polita, ikusiko litzateke. Eta gelaren erdian, bulego-mahai bat, lkeakoa bera ere, ohiko osagarri guztiekin: ordenagailua, gutun-irekitzekoa, poto bat boligrafoekin, familiaren argazkiak, eta zu zeu, mahai gainean kolpetxoak emanez, atzamar artean oraindik pintura zuriaren arrastoak dituzten esku lodi horiekin. (Begiak estalgabetzen ditu) Hau al zen?

Egun on, Marta dut izena. Ez dut ulertu -barkatu esatea- lan-elkarrizketa bat hau eginez hastea. Badakit behatzailea naizen ala ez ikusteko egiten duzula, baina... badakizu enplegu-bulegoan abisatzen digutela? Pasatzen diren guztiek bikain deskribatuko dute bulegoa, behatzaile txikienak ere. Begira, aholku bat emango dizut doan. Benetan jakin nahi duzu pertsona bat behatzailea den? Egin proba hau, hutsezina da, uzten didazu?, eskerrik asko:

Hitzordua jarri norbaitekin ordu jakin batean, hiriaren beste muturrean. Garaiz atera etxetik, sasoiz iristeko. Tokira iristean, ez aurkitu aparkalekurik. Eta denbora asko galdu bueltaka. Ordua betetzear dagoenean eta zuk oraindik aparkalekurik aurkitu ez duzunean eta etsita zaudenean, berandu iritsiko zarela, utzi ibilgailua kale erdian hondatzen, utzi, adibidez, erradiadorea apurtzen, eta has dadila irteten erradiadore-matxuren ohiko ke zuri hori. Une horretan, jarrera pribilegiatuan egongo zara, inguruko pertsonak behatzaileak diren jakiteko.

Ele txera
Munduko zabalduz



BEHATZEKO GAITASUNA

Marc Egea

Eusk: Ele txera

Motorrarekin atzetik datorren morroiak, motorrarekin atzetik datorren pertsonak, adibidez, astapotroen antzera klaxona jotzen badu, aurreratzen bazaitu, eta, zure aldetik pasatzean, kaiku deitzen badizu eta ozenki esaten badu, mundu guztiak entzun dezan: "Emakume bati bakarrik bururatzen zaion kalearen erdian aparkatzea!", seguru asko pertsona hori ez dela behatzailea, ez, kaskoan eranskailu bat alderantziz jarri eta hain alai doalako, ez, izan ere, behatzaile txiki bat konturatuko litzateke zu ez zaudela egoera horretan, zuk nahi duzulako. Zer egin kasu horretan? Begien bistarik galtzeagatik zoriondu eta esan: "Aguuuur".

Ele txera
Munduko zabalduz

